

Antso Jakitunaren kaleko bizilagunekin lortutako akordioari esker, Antso Jakituna hiriko hirugarren SmartKale bilakatzeko bidea ireki da



Argiztapen adimentsua izango du, inor igarotzen ez denean intentsitate baxuagoa izango duten argiak; smartphonerako aplikazioa, Donostiako smart kale horretan igarotzen direnek saltokien promozioen berri izateko denbora errealean; saltokietan eta etxebizitzetan energia aurrezteko gailuak; nahiz informazio guztia jasotzen duen plataforma, herritarrek web orrialdearen bitartez denbora errealean eskuratu ahal izango dutena.

Ernesto Gasco alkateordeak ondorengoa nabarmendu zuen: "Antso Jakitunaren kaleko zati honetako bizilagunekin gaur lortutako konpromisoa hirigintza-eraldaketa baino haratago doa, espazioa hiriaren abangoardia teknologikoan kokatzeko aukera eskaintzen baitu. Berretsi dezakegu SmartKalearen erreplika aurreratua dela, eta gailu teknologiko berriak ezarriko direla, bizilagunen bizi-kalitatea eta saltokien lehiakortasuna, bereziki digitala, hobetzeko. Era berean, sentsibilizazioaren eta informazioaren bitartez, espero dugu eragina izatea merkatuak mugikortasun elektrikoaren eremuan eskaintzen dituen aukera ezberdinen gainean".



Donostiako Alkateordetzaren eta Antso Jakituneko bizilagunen artean lortutako akordioa sinatuta, beste urrats bat emango da Amara auzoko kale honetako zenbaki bakoitietako espaloia birmoldatzeko; horrela, smart ekimen berria garatuko da, eta inguruneari aurrezpen energetiko eta ekonomikorako teknologia berriak eskainiko dizkio, ekimenarekin bat egiten duten saltokientzat nahiz etxebizitzentzat.

Jabeen erkidegoekin eta merkatariekin lortutako akordioan, zenbait jarduera aurreikusten dira zona horretako lur azpiko aparkalekuetan hezetasun eta ura sartzearen gaineko arazoak konpontzeko; era horretan, horren truke, espazio pribatuak utziko dituzte aurreikusitako eremua berritzeko lanak burutu ahal izateko. Etorkizuneko Antso Jakitunean, berdeguneak mantenduko dira, baina parterreak errepidetik hurbilen dagoen zatira eramango dira. Hamaika metroko zabalerako etengabeko espaloi zabala sortuko da. Zona horren eta galtzadaren artean, berriz, 5,5 metroko zabalerako berdegunea sortuko da, Indi gaztainondo arrunten bi ilarek mugatuta, eta Donostibusen markesinetara, bizikleten aparkalekuetara eta edukiontzien irlatxoetara joateko igarobideak jarriko dira.

Antso Jakitunaren kalearen smart garapenean, ondorengo jarduerak egingo dira:

- Antso Jakitunerako argiztapen adimentsua aurreikusi da, led teknologiako luminariekin, eta pertsonak detektatzeko sistema, argiaren intentsitatea gehitzen edo gutxiagotzen duena oinezkoen presentziaren arabera.
- Gailu ezberdinak jartzearen inguruko azterketa, tartean gailu mugikorrenzako USB kargagailuak dituen smart eserlekua.
- Edukiontzi adimentsuak, kaleko saltokietan nahiz etxebizitzetan, herritarrek aurrezpen energetiko garrantzitsuak izateko.
- Saltokien kanpoan nahiz barruan pertsonak zenbatzeko sistema; horrela, datu garrantzitsuak eskuratu ahal izango dira etorkizunean erabakiak hartu ahal izateko.
- SmartKalea Experience: beacon teknologia, kale horretako saltokiek sustapen-mezu ezberdinak egin ahal izateko, bezeroak lortze aldera. ATPoints aplikazioari esker, telefono mugikorrean sustapenak denbora errealean jaso ahal izango dira (bluetooth aktibatuta izanik), Donostiako smart kale horretan paseatzerakoan, denda baten aurretik igarotzean. Horretarako, gailu fisiko txiki batzuk, balizak edo beacon-ak deitzen direnak, jarriko dira establezimenduetan, eta bluetooth seinaleak bidaliko dituzte establezimendu bakoitzari buruzko informazio zehatzarekin.

Honako hau Donostiako hirugarren SmartKalea edo kale adimentsua da. Aitzindaria Alde Zaharreko Kale Nagusia da, 2014an estreinatu zena; %53ko aurrezpen energetikoak lortu ditu argiteria publiko adimentsuari esker, eta etxeko kontsumoan



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

%12ko aurrezpenak. Kale Nagusiaren ondoren, Alzako Pasealekua prestatu zen, 2017. urtean.



Hiri berri zailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus